



Context: Euskadi

BabelAR eta Lehen Hezkuntzarako helburu pedagogikoak

BabelAR jokua lehen hezkuntzako hainbat helbururi lotuta dago. Hasteko, ikasleak elkarrekin jolastuz ahozko hizkuntza eta irakurketa estrategia desberdinak erabiltzen eta lantzen dituzte. Gainera, ikasleek erabiltzen dituzten estrategiak ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentziarekin bat egiten du, izan ere, ikasitakoa beste egoera eta testuinguru batzuetara transferitzeko balio duelako (Heziberri, 2015). Era berean, Heziberri (2015) dioen moduan, zehar-lerro gisa ikasleak kompetentzia digitalean trebatzea asmo du. Azkenik, BabelAR jolasak ikasleek hizkuntzen erabileraren inguruan eta hizkuntzen arteko desberdintasun eta berdintasunez modu kontzientean hausnartuaraztea nahi du; baita hizkuntza eta kultura ezezagunei ikusgarritasuna eman ere.

